

BERRIGARA

108. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, maiatzak 21

PAZKUETAN
SEI TXOZNA
JARRIKO
DIRA
BIDEBERRIN

BERGARA
RACING
TALDEA
AURKZETU
BERRI DA

KIROLAK

BIGARREN
ERREGIONAL
MAILAKO
FUTBOL
TALDEAK
IGOERA
ESKUETAN



Aranzadi Ikastolako
haurren
ETORKIZUNA
PRIBATUAN



OPEL KONTZESIONARIETZA OFIZIALAK. JAKINTZAREN GAINEAN.

EZ DAGO
OPEL CORSA
BERRIA BEZALAKORIK
OPEL BERRIA
CORSA
NIRE KOTSEA!

OPEL


TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
Bergara (Gipuzkoa)
ARRASATEKO erakusketa
Loramendi 2. Tfnoa: 79 05 86
Deba Bailara, Leniz eta Goierri Garairako Banatzailea.

Urrerituko zerbitzu ofiziala:
TALLERES NORTE

Basabe Industrialdia, A-13 Pabiloia
Telefonoa: 79 62 65

USTELIK? EZ, ESKERRIK ASKO



**EGOERA HAU EZIN DA
ERANTZUN BARIK GELDITU.**

ZEURE ESKU ALDAKETA.

**EMOIOZU BOTOA
HERRI BATASUNARI**



HERRI BATASUNA

BERRIGARA estekaria
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde
Jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte. Masterreka, 13
Bergara. ☎ 76 08 19

Babelea: Bergarako Udala.
Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobezibar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaian.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,
Estepan Plazaola, M. A.
Elkorobezibar, J. M. Elexpuru, J.
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.
Alzela, A. Lete, J. A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabestia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiflu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.


Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

SAN JUAN ERREKA

Bergarako Oilgorra
Ehiza eta Arrantza El-
karteak San Juan erre-
karen kutsatu izana sa-
latu zuen asteartean,
horren ardura Elgetako
Udalari erantsiz.

Oilgorrakoek adie-
razi digutenez, "*aste-
arte goizean elkarteko
kide batzuk peskan ari
zirela, 40 bat amo-
rrain, milaka ezkailu
eta sarbo mordo bat ere
bai, akabatuta agertu
ziren, erreka erretze-
aren ondorioz. Hala
ere, zenbait pieza sal-
batzea lortu genuen*".

Kontutan hartu be-
har da Oilgorrakoek
7.000 amorrain-kume
errekaratu berri dituz-



tela Bergarako erreka-
tan San Juanen bertan
2.000 inguru.

Oilgorrak, institu-
zioen aurrean denun-
tzia jarri ondoren, An-
giozarren egin zen be-
zala, depuragailu bat
jartzearen garrantzia
azpimarratu zuten.

**Oilgorra Elkarteak erreka
kutsatzea salatzen du**

ITURRI ONETIK

Kirol Jerente berria

Oraindik Gobernu Batzordeak ofizial egin ez duen
arren, Iosune Linazisoro Zientzia Ekonomikoetan
lizentziaturiko 23 urteko bergararrak eskuratu du

Udalak kaleratutako Kirol Zerbitzuko jerente
lanpostua. Iosune Linazisoro Pazkuetako jaien
ostean hartuko du Kirol Zerbitzuaren ardura eta
orainarteko Kirol Patronatoko eta Mizpirualde
Egoitzako jerente izan den Gregorio Iruetagoiena
Mizpirualdeko arduradun izango da aurrerantzean.

ESAN DUTE

"Asteazkenero hiru
erroberako bizikleta
antzeko bat hartu eta
Siberian Husky
txakurrei lotzen diet
eta 25 kilometro
inguru egiten ditugu.
Erromatar inperio
garaiko koadriga
batean joango banintz
bezalako itxura izaten
dut"

AXEN GARITANO
Elurra txakurtegikoa
EGUNKARIA

"Kontuz Retegirekin.
Iaz baino fuerteago
ikusten dut"

J.M. ZEZEAGA
Pelotaria
EUSKAL TELEBISTA

"Suerte oso txarra.
izan dut Jaizkibelego
igoeran. Aukera ona
nuen zerbait
positiboa egiteko"

AITOR ZABALETA
Kotxe gidaria
EL DIARIO VASCO

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA

etxea


Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA

elektragaritza

✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



HEROE POR ACCIDENTE

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30. eta 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30 eta 22.15.

Astehelena: 19.30



LA SOMBRA DEL LOBO

Igandea: 11.30

Zinea

▼▼ Stephen Frears (*Los timadores*) komedia bat egin du, hori bai, momentuko aktore onenatarikoen laguntzaz: **Dustin Hoffman, Geena Davis** eta **Andy Garcia**. Heroiak eta komunikabideak zalantzan jartzen dituen filme bat.

▼▼ Inuit etnia eta gizon zuriaren arteko harremanak azaltzen dira Kanadan azken 20 urtetan egin den produkzio garrantzitsuenean (35 milio dolar). **Toshiro Mifune** eta **Donald Sutherland**ekin.

Musika

▼ **Udaberriko Kontzerturako** (ekainak 6) sarrerak eta ondorengo herri bazkarirako txartelak Musika Eskolako idazkaritzan jas daitezke.

Bideoa

▼ **Isidoro II** haurrentzako bideoa iragarri du JARDUN Elkarteko Gazte Taldeak larunbaterako, hilak 22, goizeko 11etan Kultur Etxean.

Farmaziak

- ▼ **Larunbata 22:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Igandea 23:** Guallar/Irizar.
- ▼ **Astehelena 24:** Estella/Amezua.
- ▼ **Asteartea 25:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 26:** Camacho/Morales.
- ▼ **Osteguna 27:** Puy/Azkoaga.
- ▼ **Ostirala 28:** Guallar/Corcuera.


Ogia

▼ **Igandea 23:** Ogizun.



Musika Eskolako taldeen Udaberriko Kontzertua ekainaren 6an izango da.

MEMESA



Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

Deiak

▼ **Hitzaldia:** Rosa Azkue sendagileak *Aumento del colesterol en la 3º edad: prevención* hitzaldia emango du Jubilatuetan asteazkenean, hilak 26, 5etan.

▼ **Mendia:** Gorla Alpino eta Pol-Polek Saint Lary-Long Lakuetara (Pirineoak) iragarri dute ekainaren 19 eta 20rako. Izen-ematea Pol-Polen egin daiteke.

▼ **Herri bazkaria:** JARDUN Elkarateak herri bazkaria antolatu du Pazkuetako astearterako. Trikitilariak eta Mikel Markezekin. Txartelak, 1.500 pta. ren truke, Pol-Pol, Arrano edota JARDUNen.

Kirolak

▼ Saskibaloia:

• 1978-79-80an jaio eta saskibaloian jokatzeko interesa duten mutilei larunbatean 10 t'erdietan egingo den entrenamendura dei egiten zaie.

▼ Futbola:

• *Bergara-Groseko* (2. errejionala). **Larunbatean** 5etan Agorrosinen.

• *Bergara-Aloña-Mendi* (2. mailako infantila). **Igandean.**

• *Bergara-Union Txiki* (lehen

Aukeran

▼▼ **Haurren Ibilaldi Neurtua** iragarri du Euskal Mendizale Federakundeak iganderako, hilak 23. Irteera goizeko 8 t'erdietatik 9 t'erdietara egingo da Azkarateko mendatetik eta partaideek 17. Km. bete beharko dituzte 12 t'erdia ordubiak aldera Bergarara heldu baino lehen. Ibilbidea honako hau da: Azkarate, Elosumendi, Santutxu, Gorla, Elosua eta Bergara.



mailako kadetea). **Igandean.**

▼ Eskubaloia:

• *Bergara-Deusto* (senior gizonak). **Igandean** 10.30etan

▼ Pelota:


• Elosuko Pelota Txapelketa (alebinak eta beteranoak). **Igandean** 11.30etan Elosun.

• *Bergara-Lasarte-Oria*. Herri Arteko Txapelketa. **Ostiralean** 22.30etan Frontoian.

▼ Futbitoa:


• **Astebukaeran** Kiroldegian.

5



PROFESIONALAK

• Astebukaera honetan ez da pelota partidurik egongo Bergarako pelotalekuan, pelotari erakargarriak ekartzerik izan ez delako. Pazkuetako pelota partiduen berri hurrengo asteko ale berezian izango duzue.



GAZTELU
Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Labegaraietako jaiak

Labegaraietako jaiak izan berri ditugula eta, bertako batzordeak hitz batzuk esan nahi dizkie parte hartu dutenei. Alde batetik, eskerrak eman nahi dizkiegu, hala edo hola lagundu digutenei. Bestetik, ordea, haserrea azaldu beharrean gaude lokal pribatuetan sartzan, trafiko seinal apurtzen eta zuhaitz botatzen aritu direnei. Azken hauei, esan behar, gure aldetik nahiago genukeela etorriko ez balira, horrelako ekin-tzek mesede gabe kalte handia egiten bait digute. Hau dela eta, kaltetu guztiei barkamenak eskatu nahi dizkiegu besterik ezean.

Bukatzeko, Udaletxearekin ere oso gustora gelditu ez garela adierazi nahi genuke ez bait digu, gure ustez, ahal zuen neurrian lagundu. Zergak ordaintzeko bergararrak baldin bagara Udaletxearen garbiketa zerbitzua merezi izateko ere bai, ezta?

Besterik gabe, eskerrikasko.

Labegaraietako Jai Batzordea

Bitoriano bergarar guztien alkate?

Orain dela gutxi gure artean Malcolm X figuraren oinordeko diren Akinyele Umoja eta Makungu Akinyela izan genituen Bergaran. Gaztetxean txarla bat eskaini zuten eta hainbat gazte han egon ginen hango errealitatea zuzenean ezagutzeko aukerarekin gozatuz, Txapa Irratiarentzat elkarrizketa bat eskaini zuten, bazkari ireki bat eskaini zitzaion Artatse elkartearen eta beraien bisitaldiaren aztarna gure herrian gera zedin graffiti erraldoi bat egin genuen, beraiek ere parte hartu zutelarik.

Guretzat diru esfortzu bat suposatuzuela eta diru laguntza bat eskatu genizuen, baina ez zeniguten jaramonik egin. Guk Bergarako bizitza soziokulturala asintzeko geure ekarpen txiki bat egitea espero genuen, baina nor ginen ezagutzuzuk betiko lazkeriz eta prepotentziaz ezeztatu eman zenigun. Gaurdino Bergaran inolako dinamizazio azaldu ez duen zenezale talde horri lehen aktibitatea egiten laguntzeko dena eskuetan eman diezu. Zergatik horrelako tratua ezberdinak? Zein interes beltzi erantzunez?

Zuk diozunez, denok dute festatan ekintza ezberdinak ikusteko eskubidea. Ez al dugu Malcolm X mugimenduko bisitaz gozatzeko eskubiderik eta zenezalezaleak diru publikoa duten bezalaxe guk hamar aldiz diru publiko gutxiago eskatu

dugunean, eta hamar urte pasatxo lanean gabiltzanean, diru laguntza minimo bat jasotzeko? Baina diruaren asuntua bigarren mailakoa da guretzat graffiti ezabatzearekin egin duzun astakeria eta faxistakeriarekin gonbaratuz.

Eskabidea pasa genuen eta baita baietza jaso ere. Zein izan da gure harridura, alde aurretik, krokis bat pasa behar genuelako aitzakia erabiliz, graffiti ezabatu duzunean. Zeini egiten zion min? Zergatik zirko bat datorrenean herria propagandaz bete dezakete eta guk Bergarara gutxitan egiten diren bisitaldi baten oroitzapenerako graffiti bat egiteko aukerarik ez dugu? Zeinek kobratzen du pintadak borratzeagatik dirua? Galderak milaka egongo lirateke, baina beti bezala erantzunik gabeko galderak.

Eta aurreko guztia, argi hitzeginda, Faxismoa eta harroputzkeriaren islada argia da. Baina jakin ezazu horrela jokatzen duenak suarekin jokatzen duela eta berandu baino lehen erre egiten dela.

Jarrai

Tiira ba!



Elkarriren firma bilketa

Elkarrizketa, akordioa eta bakearen aldeko *Elkarri* mugimenduak firma bilketa egingo du hilero Euskal Herri osoan zehar. Bergaran hileko azken larunbatetan izango den arren, maiatzekoa larunbat honetan izango da 11etatik ordubietara. Maiatzeko lema alderdi politikoei zuzenduta dago: "Eman aukera akordioari".

EAJren mitina

Bergarako EAJ-PNVk dei egiten die bere alderdikide, lagun eta herritar interesatuei bihar larunbata, eguerdiko 12etan Arrasateko San Viator ikastetxean egingo den mitinean parte hartzera.

Pazkuetan 6 txozna jarriko dira Bideberri aldean

Asteazken eguerdian egin zen Udaletxean Pentekoste jaietarako txoznen zozketa. Bertan jakitera eman zenez, eta hasieran 8 txoznetarako tokia zegoen arren, azkenean 6 izango dira (eskaerak beste) Bide-Berrin, 3 erreka aldera (Txapa Irratia, Gestorak eta Batxilergo Institutua) eta beste 3 Eroski aldera (Lanbide Heziketa Eskola, JARDUN Elkarte eta Zutik! -EMK eta LKI-).

Ordutegiari dagokionez, txoznak jarriko dituzten elkarte eta taldeek goizeko 6etan (larunbatean 8etan) itxi ahal izateko eskaera egin zioten Udalari. Udalak, berriz, eskakizun hori aztertuko duela erantzun zien. Jaber Gabilondo Gobernazioko zinegotziaren esanetan, "Gobernu Batzordeak izango du azken hitza baina neri askotxo



Herriko sei taldek txozna bana jarriko dute jaietan Bideberrin.

iruditzen zait, 4retatik 8etara bitartean beste punturen bat bilatu beharko litzateke, herri erdian edo. Astelehenean erabakiko da zer egin".

Horrez gain, hainbat baldintza bete beharko dituzte txoznek: erantzunkizun zibileko seguru bat ordaindu beharko dute guztien artean, fian-

tza bat jarri (25.000 pta. bakoitzak) Udaleko teknikariak azter ditzaten datorren ostegunerako montatu beharko dira txoznak eta kendu ere jaien osteko asteazke erako kenduko dira.

Txoznen muntaketa 100.000 pzta. inguru kostako da.

Asentzio jaiak

Zubiaurre-Martokon Asentzio jaiak ospatuko dira asteburuan. Gaur ostirala suak izango dira 21.30etan; larunbatean 11etan salda banatuko da, ordubietan jubilatuen bazkaria, 4 t'erdietan mus-txapelketa, buru-haundiak 7etan eta auzoko soinu-joleekin kalejira 19.30etan. Igandean, diana 8.30etan, txokolata jana 9etan, San Migelera igoera 9.45etan, meza 10.30etan San Migelen bertan Umore-Ona abesbatzarekin, 11.15etan mendiko bizikleta proba, salda 11.30etan, 12.15etan dantzariak eta soinu-joleak, 13.30etan soka-tira eta 6etan kalejira.



MAKAILO

Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa

Udaleko Kultur taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeak Pentekoste jaietarako elkarten arteko sukaldaritza lehiaketa konbokatu du. Larunbatean, maiatzak 29, eguerdiko 12etan Simon Arrietan egingo da lehiaketa eta partaideek makailua pil-pilean prestatu beharko dute. Jai Batzordeak sutegiak, mahaia eta makailua jarriko ditu eta partaideek olio eta berakatzat eraman beharko dute. Irabazleak txapela, trofeoa eta makailua jasoko ditu, bigarrenak trofeoa eta makailua eta hirugarrenak trofeoa. Horrez gain, partaide guztiei oroigarri bat emango zaie. Interesatuak lehen bait lehen eman beharko dute izena Kultur Etxean edota 764446 telefonora deituz.

Argazkilaritza sarituak

Agustin Gurrutxagak Ohorezko Saria lortu du Amurrioko Estatu mailako Mendi eta Natura argazki lehiaketan. Dani Santosek, berriz, bigarren saria. Biak Pol-Pol Argazki taldeko kideak dira.



Iñaxio Oliveri eta Imanol Murua izan ziren Alkartetxe berriaren inagurazioan.

Alkartetxe berria

EAk egoitza berria inaguratu zuen joan zen larunbatean

Joan zen larunbatean inaguratu zen Bergarako Eusko Alkartasunaren egoitza berria. Monja Zaharretan meza entzun ondoren, Barrenkale 18ko egoitza berrira hurbildu ziren alderdikideak, tartean, Iñaxio Oliveri EAko Idazkari Nagusia eta Imanol Murua EA-EUE koalizioko Gipuzkoako zerrendaburua senaturako. Bertan, San Pedroko parrokoak alkartetxea bedeinkatu zuen eta, ondoren, ikurriña altxatu zuen alderdikide batek. Ekitaldiari amaiera emateko luntxa izan zen.

Alkartetxea inaguratu ostean,

ekitaldi politikoa izan zen Novedades aretoan. Iñaxio Oliveri, Imanol Murua eta Xabier Gurrutxaga, EUEko Idazkari Nagusia jardun zuten hizketan. Bildutako artean, EAko aurpegi ezagun batzuk ahal izan genituen: Eneko Oregi EA-EUEko Arabako zerrendaburua kongresurako edota Pedro Mendieta Aretxabaletako alkatea.

Imanol Muruak partiduen ustekeriari buruz hitzegin zuen esane alderdi guztiak ez direla berdina eta politikarien zintzotasuna eta jatorritasuna aldarrikatu zituen.

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07



Ibilaldiarekin gaztetxoek naturarenganako sentsibilitatea lortu nahi da.

Ingurugiroaren Nazioarteko Eguna

Atzo aurkeztu ziren ekainaren 5eko ekintzak

Atzo aurkeztu ziren Irizar Jaurerrian ekainaren 5ean ospatu beharreko Nazioarteko Ingurugiroaren Egunaren inguruan antolatutako ekintzak.

Herriko talde ekologistek, Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoa (KIUB) eta Udaleko Osasun eta Ongizateko Batzordeak hainbat ekitaldi iragarri dituzte: ikastetxe, denda eta herri-tarren artean *Ekologia eta Kontsumo* izeneko folletoa banatuko da, ekainaren 3an Greenpeaceen *"Por la defensa del medio ambiente"* hi-

tzaldia izango da 19.30etan UNEDen eta larunbatean, hilak 5, 9 urtetik 11 urtera bitarteko haur-errentzako ibilaldia egingo da Usondo, Errekalde eta Unzetako parkeetatik zehar 10etan. Egun berean EEEko anagramarekin landaretxoak banatuko dira Azoka berriko plazan zein San Martin plazan. Amaitzeko, eguerdiko 12.30etan, *"Imajina ezazu Bergara biziago, gure errekak, gure parkeak, gure ingurugiroa"* marrazki eta erredakzio lehiaketaren sari banaketa egingo da Kultur Etxean.

Gaztetxeak sententzia errekurritu

Bergarako Gaztetxeak lokala uztera behartzen dion sententzia errekurritzea erabaki du. Gazteek errentaren ordean Gaztetxean hobekuntza batzuk egin eta 30 urtetan lokala dohan utzi ez zaiela adierazi dute. Bestalde, gazteek moztu bat aurkeztuko dute Udaletxean, Udalak auziaren aurrean jarrera bat har dezan.

Kontzertuko sarrerak

Golden Apple Quartet laukoteak eta Duo Plaentxi bikoteak maiatzaren 29an eskeiniko duten emanaldirako sarrerak Kultur Etxean egongo dira salgai. Sarrera 800 pta. izango da aurrez eta 1000 pta takilan.

Bergarar margolariak

Bergarako 29 margolarik Ortonovorako prestatu zuten erakusketa maiatzaren 21etik 30era Zumarragako Kultur Etxean izango da ikusgai. Ondoren Pasaian izango da.

ITURKINTZA



ITURKINTZA

ARISTEGI - TOLA

ITURKINTZA - BEROGAILUAK - GASA

Bolu, 26 behea ☎ 76 54 17

Aranzabal

OIHAL ETXEA

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50



KORTA-ZAR
Txokolategia

*Pintxo eta ogibartekoak
espezialitatea*

HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN
GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62

Bergara Racing Taldea aurkeztu da

Gorlako Igoera eta Ibilgailu Zaharren kontzetrazioa antolatuko ditu aurten

Joan den asteazkenean Bergara Racing kotxezaleen taldearen aurkezpena egin zen Kultur Etxean.

Era berean, talde honek aurten antolatuko dituen Ibilgailu Zaharren Kontzetrazioa (ekainak 12,13) eta Gorlako Igoeraren (irailak 12) berri eman zen. Bertan, besteak beste, Ricardo Murillo taldeko presidentea eta Imanol Larrañaga eta Joseba Aseginolaza Bergara Racingeko kideak eta Andoni Larrañaga kirol zinegotzia izan ziren.

Kotxezaleak

Bergara Racing taldeak gure herrian diren kotxe zaletu guztiak bildu nahi ditu. Gaur egun, 15 bat lagun ari dira lanean eta egoitzarik ez duten arren Avenida kafetegian biltzen dira. Imanol Larrañagak taldearen sorrerari buruz jardun zuen: "Gabonetan Bergarako pilotoei eskaini zitzaizen omenaldiaren ondoren, eta gure herrian dagoen kotxee zaletasunaz ohartu zenean, elkarre bat osatzera animatu

gintuen Udalak".

Bestalde, bazkide berriak egiteko asmoak azaldu zituzten. Bazkide bakoitzari 4000 pza. kobratuko zaizkio (gazteei, 2000). Diru horren truke, kamiseta bat, Gorlako Igoera ikusteko sarrera bat eta Estatuan urtean zehar Pablo Irizar edota Iban Rodriguez bergarar pilotoei korritzen dituzten karreretarako sarre-
rak erregalatuko zaizkie.

Espainiako Txapelketa

Irailaren 12an jokatu-
ko den Gorlako Igoera

Espainiako Txapelketa-
rako baliogarri diren zor-
tzi probetako bat izango
da. Aurtengoa zazpiga-
rren edizioa izango da eta
iaz huts egin bazen ere,
aurten berriz ere antola-
tzea erabaki du Bergara
Racingek. Espainiako
Txapelketarako balioga-
rri izateak proba antola-
tzeko kostuak eta lanean
jardungo duen jende kopu-
pua asko gehitu du. Guzti
horri aurre egin ahal izateko
bergararren laguntza eska-
tu zuen Ricardo Murillok.

Parte hartuko duten
pilotoei dagokienez, And-
res Vilariño, Luis Marti-

nez, Pantxo Egozkue eta
Aitor Zabaletaren parta-
detza ziurtatuta daude.

Ibilgailu zaharren erakusketa

Bestalde, ekainaren 11
eta 12an izango den anti-
gualako ibilgailuen kont-
zetrazioaren berri ere
eman zen. Estatutik etor-
rriko diren ibilgailuak dir-
Bergararaino, museoko
piezak izan arren gaur
egun oraindik martxan
baitaude. 1905.eko moto-
bat ere ikus ahal izango
da.



Joseba Aseginolaza, Ricardo Murillo, Imanol Larrañaga eta Andoni Larrañagak eman zuten Racing Taldearen eta aurten antolatuko dituen Gorlako Igoeraren eta Ibilgailu Zaharren Kontzetrazioaren berri.

ileapaindegia
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJA

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

Aranzadi ikastola izan da Euskal Herriko ikastolen artean publiko edo pribatu izateko aukeraketa egin duen lehen eskola.

Asteazkenean egin zen asanblada orokorrak Novedades aretoa leporaino bete zuen eta argi geratu zen gurasoek bazutela esatekorik, asanbladan zehar hainbat galdera egin bait ziren.

Bozketaren ordua heldu zenean, 403 guraso hurbildu ziren asanbladara, 235ek pribatuaren bidea aukeratu zutelarik eta beste 161ek publikoarena.

Irakasleek, nahiz eta aukeratzeko ahalmenik ez izan, gehinek pribatuaren bidea aukeratu zuten. Baina eskola pribatuaren bidea aukeratu duten arren, Aitor Erañak, guraso batzordearen lehendakariak, adierazi digunez "gure asmoa beti sare publikoan sartzea da eta etorkizunean ere, horretan saiatuko gara".



Joan zen asteazkenean eginiko asanbladan erabaki zuten Aranzadi Ikastolako gurasoek pribatura pasatzea. Aurrerantzean bide berria egingo du orain dela 23 urte sortutako ikastolak.

Ikastola, pribatura

Asteazkenean erabaki zuten Aranzadi Ikastolako Gurasoek

Aranzadi Ikastolaren herenungo Batzar Orokorra dauden bi aukeren, (publikoaren eta pribatuaren), arteko konparaketa batekin hasi zen, eta, ondoren, ekipo erretoreak pribatuaren aldeko jarra hartu zuen. Lehen atal hori bukatu eta gero, gurasoen galderak izan genituen protagonistak.

Gurasoek azaldu zituzten kezkak denetariakoak izan ziren, batek planteatu zuen erretore ekipoak esaten zuela zuzendaria, nahiz eta gurasoek aukeratu, Jaurlaritzak izendatzen zuela eta horri erantzunez, guraso batek planteatu zuen pu-

blikoan ere zuzendaritza eta eskolaren ardura ekipo erretorearen esku zegoela. Kuotek ere izan zuten bere protagonismoa. Guraso baten ustez "pribatuan sartzeko bidea, erretore ekipoak esaten duenez, irakasle-egoa erreziklatu egin behar da, bigarren zikloan klaseak eman ahal izateko, eta noski, horrek kostua gehitzen du eta kuotetan ere gure diru jartzea bandiagoga izango da".

Horri erantzunez, Iñazio Arregik zera esan zuen "kuotari dagokionez, oraindik ez daukagu kalkulua errealik eginda, baina Jaurlaritzaren

akordioaren arabera, eskola pribatuko irakasle-egoaren gastuei dagokionez, horiek IPCaren arabera igoko dira urtero".

Aranzadiren autonomiari buruz ere egon ziren galderak, guraso baten eritziz "erretore ekipoaren ustez publikoan sartuko bagina autonomia osoa galduko genuke, baina orain ez al gaude Ikastolen Konfederazioaren menpe?". Horrek erantzun azkarra izan zuen "publikoan sartzeko bidea gestioan Jaurlaritzaren menpe egongo gara, baina pribatuan, ikastolako gurasoak dira eskolaren nagusiak".

IÑAZIO ARREGI

Aranzadi Ikastolako Zuzendari Gerentea

"Gauzak ondo egiten baditugu kuotak ez dira asko igoko"

Iñazio Arregik urteak daramatza Aranzadi ikastolako gerente lanetan. Gertu-gertutik jarraitu du ikastolen bilakaera eta baita azken aldian izan diren negoziazio guztiak. Berarekin izan gara Aranzadi ikastolak pribatura pasatzeko hartu duen erabakiari buruz jarduteko.

arloko gaiak eta horren arabera esaten zen, ikastolak eskola publikoek duten tratamendu finantziero berdina jasoko zutela, nahiz eta praktikan horrela ez izan.

Orain pribatuan gaude-nez Jaurlaritzatik diru gutxiago jasoko dugu, eta diru kopurua urteko I.P.C.arekin batera gehituko da.


- **Funtzionamendu**

aldetik, bide berri honetan gauzek berdin jarraituko dute?

- Bai berdin jarraitzen du. Bazkideen asanblada izango litzateke linea orokorrak markatuko litzakeena, gero asanblada horrek eguneroko gauzetarako kontseilu erretore bat aukeratuko du.

- Zergatik ez duzue aukeratu sare publikoaren bidea?

- Arrazoi asko daude lehena filosofian egongo litzateke, konfluentzia legea onartu genuenean, espero genuen alde bakoitzak bere aportazioak egingo zituela eta hortik lege berria aterako zela. Baina azkenean legea gobernuan zeuden hiru alderdi politikoek egin zuten. Nik uste dut hori legezkoa dela, baina ez da guk planteatzen gure irtenbidea eta hortik irten den legeak guk geneuzkan helburu asko baztertu egin ditu. Gestio finantzieroa kentzen digu, planifikazio ahalmena kentzen digu, irakaslego kontratatatzeko ahalme-



"Gure asmoa bi urte barru derrigorrezko bigarren hezkuntza martxan jartzea da"

- Zergatik aukeratu duzue eskola pribatura sartzea?

- Gauden egoeran, jarri zaizkigun baldintzak ez dira batere onak guretzat. Sare publikoan sartzeko ez da, guk esaten genuen moduan, konfluentzia bat eman behar zela eta, bi aldeen posizioak mugitu egin beharko zirela, baina azkenean daukagun aukera bakarra Eusko Jaurlaritzak jarritako baldintzak onartu edo ez da planteatu digutena. Orduan pentsatu dugu, sasoi hobeak etorriko direla eta bitartean orain arte moduan jarraitu beharko dugula.

- Pribatuan sartzeak zer suposatzen du, Aranzadi ikastolarentzat?

- Gauzak aldatu egiten dira, legalki behintzat lehen konfluentziarako bidean bait geunden. Konbenio horrek jasotzen zuten gehienbat finantziario

na kentzen digu, azken finean dena kentzen digu Euskal Eskola Publikoaren Legeak. Orduan esaten duzu guk dena eman eta ezer ez hartu?

- Datorren urterako ze diru kopuru jasoko duzue Eusko Jaurlaritzatik?

- Ez dakigu oraindik zehatz mehatz zenbat izango den, lehen ere konpromisu bat zegoen, baina Jaurlaritzak ez zituen oso osorik betetzen. Orain esaten digu pertsonal dozente guztia ordainduko digula, baina ze pertsonal den hori, aurreantzean eztabaidatu beharko dugu. Pertsonal ez dozentearen arloan, pertsonalaren bi heren ordainduko dizkigu. Hori urtero I.P.C.arekin egotikoko da.

- Gurasoek, gehiago ordaindu beharko dute orain?

- Bai, baina kopuruak ez dira izango lehengoak baino askoz haundiagoak. Lehen hilero 1.400 pza. ordaindu behar zuten, eta datorren urtean 1.800-2.000 pza inguru ordaindu beharko dute.

- Baina etorkizunean kuotak gora egin dezakete?

- Guk numero batzuk egin ditugu eta gauzak ongi egiten baditugu, kuotak ez dira asko igoko. Horretarako pezeta bakoitza begiratu beharko dugu eta kuotak IPCarekin igoko dira.

- Irakasleen plantilak gorabeherarik izango al du?

- Gure asmoak, derri gorrezko bigarren hezkuntzako mailak martxan jartzea da, bi urte barru inguru. EAJ eta PSOEk firmatutako akordioaren arabera, bi linea dituzten

ikastolek hori emateko aukera izango dute eta gelarik ez balego eskola publikoetan hutsik dauden gelak uzteko posibilitatea dago, 50.000 mila pza. gela bakoitzeko ordainduaz, eta gu hori aztertzen ari gara. Orduan bigarren hezkuntza ematen badugu, uste dut, fijoak diren irakasleak behintzat, mantentzeko aukerak daudela.

- Irakaslegoa orain mantendu egingo da, baina etorkizunean ze eboluzio izango du irakaslegoak?

- Nire ustez mantendu egingo da. Numero batzuk egin ditugu, dena den orain gure politika gastu aldetik nahiko restriktiboa izango da. Badakigu matrikulak gutxitzen ari direla eta ezin duguna da, handik eta hemendik irakasleak kontratatzen ibili. Orain gure helburua daukaguna mantentzea eta erreziklatzea izango litzateke.

- Gure herrian derri gorrezko bigarren hezkuntza egiteko aukera asko daude. Zuen apostuak funtzionatuko al du?

- Edozein erabakik dauka bere arriskua, baina guk pentsatzen dugu hezkuntzan eta gehiago maila horretan, 12-16 urte bitartekoan, haurra hazi eta hezi egin behar dela. Guk uste dugu hori hezkuntza komunitate berean hobe egiten dela, baina horrekin ez dut esan nahi besteak gu baino txarragoak edo hobegoak direnik. Baina benetan uste dudana da, 14-16 urte bitartekoa hezkuntza komunitate berean eginda aberasgarriagoa dela.

Sindikatuak adostasuna agertu dute hartutako erabakiarekin



**Iñaki Mugika
ELA**

"Bi aukerak nabiko ilunak dira"

"Ikastola bakoitzeko egoera ezberdina da, eta aurki dezakezu beste ikastola batean ELAko bat publikoaren alde eta gure kasuan pribatuaren alde. Bi aukerak nabiko ilun daude, baina, gure kasuan, pribatura sartuaz lanpostua pertsona ezagun batek eskeintzen digu, eta Buesak esaten duena, berak esaten du, eta hori alda daiteke. Gainera publikoan sartu izan bagina, eskola publikoetako irakasleen eskubide berdinekin sartuko gineteke, baina azken finean, ez konfederakuntzak eta ez Jaurlaritzak ez dute kontuan izan gure eritzia. Bi aukerak nabiko ilun daude, ez baitago ezer zehaztuta".

**Yolanda Juaristi
LAB**

"Beste Euskal Eskola Publiko baten alde gaude"



"LABek egin duen apostua izan da, eskola bakoitzak erabakiko duela zer egin. Ez da berdina Donostian dagoen ikastetxe bat izugarritzko zorrekin, eszedente pila batekin, Aranzadi ikastolarekin konparatuz, gu bemen pribatuaren alde gaude eta. Baina gure ustez publikora joaten direnak blokean joan beharko dira eta pribatura joan garenok ere blokean joaten saiatu beharko dugu abal den eta gauza gebienetan. Horretaz aparte, Aranzadi ikastola publikoaren alde azaldu izan da, baina EAJ eta PSOEek egin duten lege honen alde ez".

Iritziak iritzi...

Aranzadi Ikastolako gurasoek joan zen asteazkenean izandako asanbladan hartutako erabakiari buruz, hezkuntza mailan herrian zerresana daukatenen iriztiak jaso nahi izn ditugu. Hona hemen euren hitzak.



KOLDO PEREIRA
Udaleko hezkuntza
arduraduna

Hasiera batean ikastola bakoitzak bere nortasuna dauka eta pribatuan sartzen denean, gero, berak ikusi beharko du ze aukera dituen aurrera iritezko. Aranzadi Ikastolak lokal edo infraestruturara aldetik arazoak izan ditzake. Orain poligonoan duen lokalak eta auzoetako lokalak Udalarenak dira eta 97 arte ikastolarekin konbenio bat firmatua daukagu lokal horiek erabil ditzaten; hortik aurrera, ez dut esaten ikastolak lokal horiek utzi beharko dituenik, baina bai hitz egin beharko dugula. Gainera Ikastolak prozesua jarraitzeko batzorde batzuk eratu ditu, baina gurekin lokalei buruz hitz egiteko, ez dira kontaktuan jarri.

Momentu hauetan, badago gure herrian beste eskola pribatu bat, Mariaren Lagundia, eta hauek Ikastolarekin konparatuz, Udaletik jasotzen duten subentzioei dagokionez, diskriminaturik daude. Orain Udalak Ikastolari mantenimendua eta garbiketa egiteko diru kopuru bat ematen dio, baina etorkizunean diru kopuru hori beste baremo batzuk jarraituz egin beharko da. Bergarako hezkuntza ordenamenduari dagokionez, Udalak bitartekari jarrera hartuko du eta Siadecori enkargatutako txostena

(bertan eskola bakoitzaren egoera aztertzen da) ikusi ondoren denon artean finkatu beharko dugu, gure herriko hezkuntz mapa.

MERTXE LASKURAIN
Aranzadi Ikastolako
gurasoa

"Duela 4 urte Aranzadi Ikastolak publikotasunaren bidea hartu zuen eta nik bide horretatik jarraitzen dut. Ni sortu zenetik naiz Ikastolako bazkide eta Euskal Eskola Publikoaren gaineko prozesua niretzat galdu eginda, gebiengoak publikotasunaren alde zegoen espiritu hori galdu egin du. Nik uste dut publikoan demokrazia gebiengo dagoela, asanbladan aipatu da ekipo erretoreak ez duela erabakirik hartzen eta nik uste dut eskola publikoetan erabakiak hartzeko ahalmena baduela kontsejo erretoreak. Pribatuan, ostera, irakasleak ez dauka publikoan dituen eskubide berdinak, publikoan, behintzat, denek dituzte aukera berdinak. Gainera asanbladan adierazi denez badirudi eskola publikoak diru gutxiago duela, baina publikoan irakasleen soldatak administrazioak ordaintzen ditu eta, orduan, normala da gestionatzeko diru gutxiago izatea".



□ **JOSE ALVAREZ**
San Martin
Ikastetxeko
Zuzendaria

Momentu honetan Aranzadi Ikastola ez dakit nola geldituko den. Erabaki horrek gure zentruarentzat ez dauka inportantzia gehiegirik.

□ **JOSE MARI LARRAÑAGA**
Lanbide Hezkuntza
Eskolako Zuzendaria

Gaiari buruz, oraindik, gure zentruak ez dauka iritzi ofizialik baina pertsonalki esan dezaket Aranzadi Ikastolak BBB jartzen badu, orain ilegalki dagoena, min asko egingo digula.

Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...

JARDUNen asmoak

Epe laburrerako, batzuk, luzerako beste asko, JARDUN Elkarteak hemendik aurrera gauza ugari egin nahi ditu. Alde batetik, talde berriak sortu (kanpo Harremanak, Emakume Taldea, Merkataritza Taldea...) eta bestetik orain lanean diharduten taldeen egitasmoak indarrean jartzea (esate baterako, Kartzela Zaharra kultura eta astialdirako zentru bihurtzea). Bestalde, bada Deba Garaian euskararen erabilpena bultzatzeko sortutako elkarteak biltzen dituen beste elkarte bat: **DEBAGUNE**. Talde horren sortzaileetariko bat izan zen JARDUN Elkartea eta aurreantzean taldea indartzea da asmoa.

Gartzela Zaharra JARDUN elkarteari eskaini dio Udalak eta JARDUNek erabilpen askotarako zentrua bihurtu nahi du: gaztetxo eta gazteei eskaintza zabala eskainiko liekeen kultur eta aisia zentrua. Dagoeneko ekintza batzuk antolatu dira bertan, esate baterako Mikel Markezek emandako Euskal Kanten ikastarora. Argazkian, ikastaro horretan parte hartzen duen taldea.



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!

Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...

TALDE BERRIAK

Joan zen astean aurkeztu genizkizuen lanean dauden **JARDUN** Elkarteko talde ezberdinek orain arte egindakoa eta etorkizunerako dituzten asmoak. Baina, badira, laster batean martxan jarri nahi diren talde berriak: **Kanpo Harremanak, Emakume Taldea eta Merkataritza Taldea.**


- **Kanpo Harremanak:** Egunkaria Eguna, Argia Eguna edota Korrika bezalakoak Bergaran antolatzen lagunduko luke.

- **Emakume Taldea:** **JARDUN**en hasierako helburu nagusia euskara gizarteko esparru guztietara zabaltzea bada, emakumeen intereserako ekintzak antolatzea izan da betiko asmoa. Denbora gutxi barru lanari ekingo dio eta izango duzue horren berri.

- **Merkataritza Taldea:** Bere eginkizun nagusia denda munduan euskararen erabilera bultzatzea izango da.

DEBAGUNE: DEBA GARAICO ELKARTEEN ELKARTEA

Askok ezagutuko ez dituzuen arren, **Deba Garaiko** herrietan badira **JARDUN** bezalako euskararen erabilera bultzatzeko sortutako beste elkarte batzuk: **Antzuolan Idolaz, Oñatin Laixan, Arrasaten AED, Aretxabaletan Beinke eta Eskoriatzan Astroki.** Talde guzti hauek biltzen dituen elkarte bat ere bada: **DEBAGUNE.** Dagoeneko urtebete badarama lanean eta bere helburu nagusia hainbat eginkizun elkarlanean antolatzea izango litzateke.



Aitor Sarasua
DEBAGUNEkoa

"Deba Garaiko herrietan euskararen erabilpena bultzatzeko sortutako taldeen indarrak koordinatu beharra zegoela obartu ginen eta horregatik sortu genuen DEBAGUNE. Helburu nagusia bailara mailan antolatzen diren zenbait ekintza elkarrekin antolatzea izango litzateke: herri arteko tikimikietatik atera eta eskualdean dauzkagun kultur bitartekoekin bailarako herrietan ekitaldiak antolatzea".

GARTZELA ZAHARRA, KULTURA ETA ASTIALDI ZENTRU

Gartzela Zaharreko lokalak erabiltzeko Udalak JARDUNi egin dion eskaintzaren ondoren, lokal horiei erabilpena emateko bidea aztertu du eta dagoeneko proiektu bat egina badu. Egitasmo horren ardatz nagusiak aipatuko ditugu jarraian.

Gartzela Zaharra herritarrei eta, bereziki, gaztetxo eta gazteei eskaintza zabala ekainiko liekeen kultur eta aisia zentru bihurtu nahi litzateke.

Zentruak kultur eskaintza zabal eta erakargarria egiteko ahalegin berezia egingo luke: ikastaroak (txontxongiloak, argazkigintza, tailagintza, txalaparta, euskal kantagintza,...), bidaiak, Euskal Herriko beste gazte talde batzuekiko elkar-trukeak...

Bestalde, denborapasarako jokuak izango lirateke, asteburuetan jendea erakartzeko iharduerak antolatuko lirateke, etab.

Amaia Zabaleta EMAKUME TALDEA

"Gure asmoa euskara emakumeen artean bultzatzea da eta borretarako lehenengo ekintza, taldea sortzeko batez ere, epe laburrean euskara ikastaro labur bat antolatzea da. Horrekin loturik bainbat bitzaldi antolatuko ditugu dietetika, dekorazioa, sexologia eta beste eratako gai ei buruzkoak".



Gartzela Zaharra JARDUN elkarteari eskaini dio Udalak eta JARDUNek erabilpen askotarako zentru bihurtu nahi du: herritarrei eta, bereziki, gaztetxo eta gazteei eskaintza zabala ekainiko liekeen kultur eta aisia zentrua. Dagoeneko ekintza batzuk antolu dira bertan, esate baterako Mikel Markezek emandako Euskal Kanten ikastaroa. Argazkian, ikastaro horretan parte hartzen duen taldea.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!

Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!



IZENA.....
ABIZENAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....
ADINA.....
TELEFONOA.....

BAZKIDE KUOTA: **4.000** pzta. URTEAN. (IKASLEEK **500** pzta.)

MOZTU ETA BIDALI JARDUN
ELKARTERA (MASTERREKA 13.
76 08 19)

PIKUPE

Herriko elkarterik zaharrena

Pikupe elkarteko juntako diren Jose Ignacio Agirre, Laureano Askar-gorta, Jose Luis Manuel, Eusebio Camacho, Juan Señudo eta Serafin Señudorekin hizketaldi baten ondoren jakin genuen Pikupeko historia eta izandako gorabeherak.


Pikupe elkartea 1942. urtean sortu zen. Hamarreko lagun talde baten ideiak aurrera jo ondoren. Bere helbidea garai hartan San Antonioko Askasibar tabernan zegoen. 1942.ean ezinezkoa zen elkarte gastronomikoak zabaltzea, eta zezenzaleen elkarte bezala zabaldu zuten (Peña Cañitas izenarekin). Orain ere horrela jarraitzen du.

Gaur egun ere elkartea zezenzaleen elkarte bezala dago, baina lehen zegoen ohiturak ez du jarraitzen. Bazkideen artean zezenak izugarri gus-tatzen zaizkionik badago, baina baita bat ere inter-esik ez duenik ere.

Hasiera batean ez zegoen sukaldarik elkartean, eta orain dela 20 bat urte ipini zela azaldu ziguten.

Gaur egun 22 bazkide dira Pikupeko. Bazkide hauen batzbesteko adina 46 urtetakoa da.

Elkarte hontan 550.000 pztako kaja batzen dute kontsumoarekin. Aipatu digutenez, azken bi urte hauetan igo egin da batutako kaja. Badirudi orain ohizko afariez gain, egunero elkartean bazkaltzen duen taldetxo bat elkartzen dela, eta honek bere eragina du elkartean. Falta kontutan ondo dabil-tza



Herriko elkarte zaharreneko bazkide batzuk.

Pikupeko. Ez dute faltarik. Azaldu digutenez, bazkide gutxi dira, eta inoiz norbaiti zerbait pasatzen zaio, baina ezer gutxi. Hilean 3.000 pztako kuota ordaintzen dute bazkideek.

Elkartearen eguna otsailaren 4an ospatzen

dute. Egun horretan, hil diren bazkideen aldeko meza ospatzen dute. Ondoren, Batzar Orokorra egin eta bukatzeko, elkarteak gonbidaturiko afari bat.

Elkarte honek beti hartu izan du parte herri- an ospatu diren ekintzetan. Aintzinatik antolatu izan du Pikupeko ospakizunen bat. Pikupeko bazkideei horrelakoak gogoraraztean, elkarteak San Pedroko elizari 1957. urtean oparitu zion prozesiorako irudi bat aipatu digute.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1942.

BAZKIDEAK: 22.

HELBIDEA: Artekale 7.

PRESIDENTEA: Jose Ignacio Agirre.

ELKARTEAREN EGUNA: Otsailak, 4.

URTEKO KUOTA: 36.000 pzt.

HAGIN KLINIKA

– Era guztietako konponketak egiten ditugu –

* * *

PABLO MARMOL MASTRANGELO doktorea
MARISA PORTA PEÑA doktorea
GABRIELA PORTA PEÑA doktorea

Simon Arrieta Plaza, 3-2.
 Tfnoa: 76 38 54
BERGARA

Iturriotz 7 bis, behea
 Tfnoa: 79 73 88
ARRASATE

Orain dela 5.000 urteko kontuek dinoskuenez, orduko bizilagunen azken muga, 30/40 urtetakoa zen; mende honen hasieran, 50/60koa; eta, gaurko aurreikuspenak dioskutenez, 70/80rainokoa, gainditu lezakete, mende honen azkenerako.

Garbi ikusten da beraz, bizi-modu aldi bakoitzak dakarren abantailak direla aldaketa honen jabe. Esate baterako, gaurko amek, umealdi hobek gerta litzaketelako; umeentzako mantengaiak, garbitasuna, osagileen prestaketa, osakidetzaren inguruko laguntasunak eta ardurak hor dagozelako, eta, gazte denbora luzean zehar kirol guztientzako aukerak praktikagarri hor direlako, gorputz moldaketak lortzeko. Alderantziz, baliteke gaurko gazteen areriorik arriskutsuenak mendi kirol eta autobideak direla. Bertan sortzen diren istripuak, zerrenda bildurgarria dute.

Aurrera jarraituz, emakume-gizonezko, gizaldi bakoitzak behartzen gaituen arloetara bueltatzen gaituzte. Geure fruituak eman eta zerreginak bete ondoren, "Hirugarren adinera" hurbiltzen gara osasun eta ahalmen ezberdinekin. Batzuek, kasta gogorrekoak, sasoidun iristen dira maila horretara; bizimodu errezagoa eta astakeriak baztertuz zaindu direnak ere, hor nonbait. Lanpostu usteletan aritu direnak edo bizimodu halanolakoak arrastatu dituztenak, lojikoki, irudi itxusiagoekin.

Ikuspegi horiek oinarri ditugula, goazen urteak izenpetzen

**Mundua mundu,
emakume-gizonez koek
sortu ziranetik gero,
euren bizitzaren
iraupena luzatuz
jarraitu dute mende
guztietan zehar.**

**Bildu dudan
sortatxotik...**

**ZAHARTZAROKO
IRUDIAK ETA
NEURRIGABEKO
ONGI NAHIAK**



Antonio URZELAI

gaituzten egontokira. Atsedentxo egin eta gero, aurrerantz begiratu, aldarri (programa) praktiko bat moldatu dezagun bakoitzak. Gehienok ditugu zerreginak, aipatu dugun aldarri hori oinarri ditugula.

Adineko egongiro horretan aitonen tarteko harremanak nahiko gradu egokitan jarraitzen dute. Gaztekingoak, ostera, nabarmen galduz joaten zara. Ez ihes egiten dizkizutelako, ez Beste giro batean bizi direlako arazo ezberdinak dituztelako eta orain arte ere, zerbaitegatik, horrela gertatu delako. Gazteak zaharragoa agurtzerakoan, ZUKAKO harrera egingo dizkizu... Hara hor, bertan, sarrerako ezberdintasuna. Hurrengo, normalean, onginahiko hitzak eskainiko dizkizu.

Gertakizun baten bidez, adieraziko dut hobeto:

Oraintsu, denbora gutxi dela, nire begiko lagun batekin trink egin nuen Bergarako kaleetan. Ustekabeko topaldia, urte mordoskan elkar ikusi gabe, eta, gogo onez agurtu ginen. Hasieratik esan zidan, oso ondo bilatzen ninduela; niretzat urterik ez zela pasatzen; mutikotxo baten irudia nuela, etab. Ni ere saiatu nintzen berari tokatzen zitzaion erantzuna ematen.

Nork ez ditu gustora entzuten horrelako onginahiak?

Bakarrik gelditu nintzenean, ordea, bururatu zitzaidanik hoge urte nituenean, inor ez zidala horrelako gauzarik esaten. Errealitate, beste upel bateko txakoliña dela, alegia.

**EGUREN
GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Diez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea.

☎ 76 21 65 / 76 24 45

**Kiroldegiko
Taberna**



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

HARATEGIA-URDAITEGIA



Komenio kalea, 2 ☎ 76 10 72

LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

**H
E
Z
I
K
E
T
A**

IEE (REM) 1. zikloa A, B, D erduetan

• **BATXILERGOA:**

Administrarritza (BAG)
Tekniko Industriala (BIT)

• **MODULO III FABRIKAZIO MEKANIKOA:**

• **LANBIDE HEZIKETA:**

Administrarritza
Elektrizitate / Elektronika
Mekanika

**E
S
K
A
I
N
T
Z
A**

AURREMATRIKULA: Maiatzak 13tik 27ra bitartean

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**

Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



APPÉNIZ

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**


Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**A
R
R
A
N
O**

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

**Hauteskundetarako debateak
jarraitzen al dituzu?**



Juan Carlos Fernandez
30 urte, langilea

Ez diet kaso haundirik egiten. Gainera hauteskundeetan ez dut botatzeko ohiturarik.




Rosa Olalde
48 urte, etxekoandra

Zenbat eta gütxiago hobe. Ez daukat batere konfiantzarik politikoengan.



Txaro Morales
33 urte, langilea


Egia esan, ez dut politikaz asko ulertzen baina gustatzen zaizkizue noizean behin jarraitzea. Batez ere informatuta egoteko.



Antxon Sasiain
24 urte, langilea

Ez ditut jarraitzen, beste hizkuntza batean berba egiten dutela ematen du eta.

MARKIEGI Automobilak



Leizeaga, 1
(San Lorentzo Pol. Ind.)
☎ 76 35 09



- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

ADI ORAIN:
I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)



267 lanpostu arriskuan

Krisi egoeran omen gaude. Gero eta langabetu gehiago dago. Beraz sinestezina da, Gasteizko Gobernuak 267 pertsonari lana ematen dion enpresa bat borondatez eta gogo handiz itxi nahi izatea. Ez da erreza hau sinstea, baina horrela da. Dirua jasotzeko orduan, zergak kobratzerakoan, denok gara berdinak. Baina gero diru horren banaketa ez da askotan justua.

Egunkari guztiak dituzte irakurleak, zergak ordaintzen dituztenak. Baina Egin egunkariko irakurleek ezin dute informazio publikoa jaso Jaurlaritzak boikoteatu egiten duelako, EGIN irratia eta egunkariko 267 lanpostu arriskuan jarriaz. Denon diruarekin gainera.

DEIAK esaterako askoz irakurle gutxiago ditu, baina urtean zehar hainbat milioi gehiago jasotzen ditu publizitate ofizialaren bidez, 1992an adibidez 200 milioitik gora, hots, guztion diruarekin. Non da justizia?

Noski, PNV eta PSOEk eskutik helduta agintzen dute. Langabezia arazoari irtenbidea emateaz berba asko egingo dute, batez ere hauteskundeetan, baina ez zaie inporta nere eta beste 266 lagun lanpostua galtzeko bidean jartzea, beren interes politikoak eta pribilegioak defenditzen baitituzte.

Noiz arte egingo dira honelako bidegabekeriak demokraziaren izenean?

Jon Altuna



Santio bideak

Donostiako Elizbarrutiko Museoak eta Gipuzkoako Santiago Bide Lagunen Elkarteak antolatutako "Santiagorako Bideak Gipuzkoan" erakusketan, kostaldeko bidean zein Irundik Aitzgorriko San Adrian pasabidera arteko barnekaldekoan ditugun eliz eta ermitetan aurki daitezken Santiago, San Roke, San Sebastian, Santa Marina edota San Martinen imaginariak interesgarrienak aurkezten dira, aipatutako santuak bait dira gizaldietan barna erromesen zaindari kontsideratu izan direnak eta bide batez, bere irudien presentziarekin peleginen bideen nondik norakoa argitzen digutenak. Badaude erakusketa honetan Bergarako bi artelan: Santa Marina Parrokiako Santaren imajin barroko bat eta Eliza bertako pintura bat, XVIII. mendekoa, San Roke eta San Sebastian irudikatzen duena eta adituen ustetan Manuel Bayeuren lana dena.

Bergara, lehen aipatutako eta ezagunenak diren bi bide gipuzkoar horietan aurkitzen ez bada ere, ikerlari askoren esanetan Santiagorako bidearen adarrak igarotzen ziren gure herritik, erromesak gero hemendik Elorriora abiatuz Bilboraino iritsi edo Gatzagatik joanez Gasteizeraino hurbiltzen zirelarik. Ez dugu ahaztu behar Santiagorako bidearekin zerikusi handia duten gunek ditugula Bergaran: esandako Santa Marina parrokiako adibideez gain, hor daude Basalgoko Santiago ermitako Santiago erromesaren imajin gotiko zoragarria edo Azkunetako San Martingoa, non San Martin, San Sebastian eta San Rokeren irudiak gordetzen bait dira.

Xabier Aranburu

EXUKLIN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT

San Lorentzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

KAILASH
ZENTRO
ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

Beheko Taberna

Menestra eta konejoo dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

Bazkariak eta afariak

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR



□ Gipuzkoako txapelketara

Hona hemen maiatzaren 26, 27 eta 28an Legazpin jokatu den Gipuzkoako **Jubilatu**en txapelketetan Bergarako ordezkari izan direnak Ezkerretik eskumara: Jose Arakistain, Juan Zuazolazigorraga eta Jose Mari Uribe (toka), Eugenio Diez eta Jesus Manso (domino), Hilario Etxerria (tute), Jose Agirre (mus), Jesus Etxabe eta Martin Guridi, (briska), Jose Fernandez eta Jose Mari Artola (billar). *Olinpiada* hauetan ahalik eta domina gehien lortzeko asmoa azaldu dute... Ea ba!!



□ Kirolaz mintzo

Kirol Zerbitzuak eta JARDUN Elkarteak modan dagoen mendiko bizikletari buruzko mahai-ingurua egin zuten astelehenean UNEDen. Bertan **Ismael Lejarreta**, **Iñigo Igartua**, **Joseba Arietalealeaniz** eta **Jesus Kortabarria** "Kaxeta" hizlari eta **Xabier Andueza** ETBko kazetaria moderatzaile lanetan aritu zen eta guztiek ere gomendio interesgarriak eman zizkieten kirol hau egiten dutenei eta baita txirrinduzale potentzialei ere. Baietz mendietan eta errepedietan laister nabari!!



IRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

San Pedro 11
☎ 76 51 65

MEKOLALDE TABERNA

Sai zorientsuak para ditzazuela

MEKOLALDE


☎ 76 50 18



Santa Morinako irudiak balore artistiko handia omen dauka eta prózesioetan erabili izan da.

□ **Gipuzkoa calidade**


Joan den asteartean zabaldu eta uztailaren 15era arte **Santiagorako bidean** gure probintzian aurki daitezken arte lan inportanteenen inguruko erakusketa egongo da ikusgai **Donostiako Elizbarrutiko Museoa**n. Bertan Bergarako ordezkari eta ere izango da: *Santa Marinako irudia*



(argazkian, goian) eta *San Sebastian eta San Roke* (Santa Marina, ezkerreko argazkian) izeneko margoa ikusi ahal izango dira, euskal artearen lan onenekin batera. Erakusketa asteartetik ostiralera 16.30etatik 20etara egongo da zabalik zapatu, igande eta jaiegunetan 11etatik ordubietara. Antolatzaileen helburua, Santiagorako bideen aberastasuna jakitera ematea eta, bide batez, jendea bidea egitera animatzea. Badakizue, urte *xacobeoa*...

Zertan dibardute ba?

MARTIN ARRIARAN



Bergara Xake Taldeko 29 urteko kide honek joan den larunbatean Arrasateko Musakola auzoan jokaturako Xake Txapelketa irabazi zuen. Ibon Elkoroberezibar bergararra 4. postuan geratu zen.

ARANTZAZU IDIGORAS



Arrasate Musikaleko 24 urteko irakasle bergarar hau Benito Lertxundi kantariak kaleratutako abesti guztien (95 inguru) musika eta letrak biltzen ari da, bere lanaren inguruko tesia burutzeko asmoz.

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

IZADI
PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

Aldatz bera Vuelta Frantzia

"Vuelta Frantzia" korritzen zan egun aietan. Gilanian, maixan jarrita txirringuzale mordozka bat zegoan "AS" errebista aurrian zeukatela. Koloretako orri asko agertzen ziran "Vueltako" paradisoak kontatzen. Erdi-erdikuan an ikusten zan ziklista pilla aundi bat. Pelotoian zoiazan. Danak arrixuta geratu ziran fotografi arekin. An zegoan Markox be tente adurra darixola txirringulari pilla ura ikusten. Batek esan zeban:

- Onek goruntz ala beerutz joiazak?
- Orrek? Beerutz, esan eban Markoxek.
- Zelan dakik ori?
- Pedalari emon barik joiazak eta.

Fusiblerik ez

Epoka aretan, Plaentxian pertsona zar mordoxka bat il zan. Ori dalata, kuadrilla baten diskusiñua sortu zan, ia zergaitxi ete zan. Artadi medikua-rengana jo zeben esplikaziño billa. Onek erantzun:

- Ara ba: pertsona nagusixak etxakek fusiblerik, eta orregaitxi, leenengo kontaktuan, iltzeko arrixku-an dauaz.

Pedro Zelaia

Jesus Aranzabalek zazpi urte eman zituen profesioaletan. 1957an ekin zion afizonatu mailan eta 1966an FAGOR taldearekin profesioaletara pasatu zen. Lau denboraldi eman zituen ekipo honetan eta 1969an BIC taldera joan zen 1972an erretiratu zen arte. Bergarak eman duen ziklistarik ezagunena, txirringularitzaren goreneko mailetara iritsi zen. Tourra 3 aldiz korritu zuen, 1966, 67 eta 73an eta hiruretan amaitzea lortu zuen.

Vuelta, sei bider eta 1972an Gasteiztik Donostiara jokatu zen azken etapan garaipena lortu zuen Anoetako belodromoan. Vuelta a Andalucia eta Vuelta a los Puertos behin irabazi zituen eta Euskal Herriko itzulian bigarren geratu zen beste behin.




ARANZABALEK IRABAZI ZUEN IHES EGINDA MALLORCAKO ITZULIKO HIRUGARREN ETAPA

Aranzabal, FAGOR ekipoko txirringulari espainiarrak, irabazi zuen Mallorcako Nazioarteko Txirringulari Itzuliko hirugarren etapa, malda txikiren batzuk kenduta, ia guztiz laua izan zena.

Irtan eta 65 kilometrotara, San Juanera iritsi baino lehenago, alde egin zuen Aranzabalek eta handik zenbait kilometrotara gauza bera egin zuen BIC taldeko Adler txirringulariak. Hala ere, ez zuen Adler-ek Aranzabal harrapatzerik lortu eta bi txirringulariek bakoitzak bere aldetik egin behar izan zuten helmugara arteko bidea.

Amaieran honako hau izan da sailkapena: **1.** Aranzabal (Fagor). 4.51.54.; **2.** Adler (Bic). 4. 56.57.; **3.** Borgona (Bic). 5.01.57.; **4.** Gomez Moral (Kas). 5.01.57. Sailkapen orokorra, berriz, honela dugu: **1.** Monty (Peltforth). 13.03.02; **2.** Lopez Carril (Kas). 13.04.16; **3.** Sels (Bic). 13.04.27; **20.** Anquetil. 13.22.35. 1968-V-18. La Voz de España.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

EDEL tapizdenda

Etterako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



ITZIAR USANDIZAGA

ITZIAR USANDIZAGAK irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Azken BONOFOTOAn agertzen zen elkartearen izena **LAGUN ARTEA** elkartearen izena eta horrela jarri zuen Itziarrek.

ZORIONAK ITZIARri eta besteek segi jokatzen!!

Zein urtetan pasatu zen azken aldiz tren bide honetatik?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria: **ANEZKAK**
emandako saria

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

EMAIOZU BUELTA ORRIARI...





... EMOIZU BUELTA BAT ESPOLOITIK



ZIPRISTIN OINETAKOAK
☎ 76 57 36



BERGARA PIEL
☎ 76 20 70



anezka ☎ 76 59 25



ALDASORO OINETAKOAK ☎ 76 01 18



ZUHAIZTI TABERNA ☎ 76 59 22

ESPOLOIKO DENDARIAK

BISITA GAITZAZU

Ibilaldi neurtua

Euskal Mendizale Federakundeak XIV. Haurren Ibilaldi Neurtua iragarri du iganderako, hilak 23. Irteera 8.30etatik 9.30etara egingo da Azkarate mendatean eta helmuga Bergaran 12.30etatik ordubietara. Partaideek 17 Km.ko ibilbidea bete beharko dute eta ibilaldian zehar txartel bat emango zaie kontroletan aurkezteko.

Finalera

Oruesagasti eta Oregi II.a Bergara K.E.ko senior pelota bikote bergararra Deba Arroko finala jokatuko sailkatu da asteazkenean Aretxabaletako Errasti anaiei 22 eta 14 irabazi ondoren.

2. errejionaleko futbol taldeak igoera eskuan du

Bergara K.E.ko 2. errejionaleko futbol taldeak ia eskuan du lehen errejional mailarako igoera joan den igandean Donostian, promozioko joaneko partiduan, Grosekori 2 eta Seko emaitzarekin irabazi ondoren. Manu Diazen gizonak partidu borobila egin zuten eta lortutako abantaila nahikoa izan behar zaie bergararrei larunbatean, 5etan, Agorrosinen jokatuko duten itzulerako partidurako.

Bergararrek, esan bezala, ez zuten inolako zailtasunik izan Matigoxotegin Groseko menderatzeko eta atsedendian 0 eta 3ko abantaila lortu zuten, Etxaniz, Murua-mendiaraz eta Pacoren golei esker. Bigarren zatian, berriz, donostiarrek penalti eztabaidaga-



Manu Diaz entrenatzaileak oso talde trinkoa osatu du.

ri bati esker aldea murriztu zuten arren, Juanjok eta Bonik beste bi gol sartu zituzten eta amaieran Groseko bere bigarrena egin zuen.

Aipatzekoa talde guztiak egindako lan bikaina eta baita jarraitzaile bergararrek (50 inguru) emandako laguntza. Par-

tidu amaieran Bergarako jokalariek eta Manu Diaz entrenatzaileak zelai erditik agurtu egin behar izan zituzten, zalegoaren txaloen artean.

Biharko partidua, 2. errejionaleko finalaren atarian (maiatzaren 30ean partidu bakarrera), festa ederra izango da.

Pentekoste Gimnasia Saria

Larunbatean II. Pentekoste Gimnasia saria jokatuko da Kiroldegian. Parte hartuko duten 9 taldeen (Ariznoa tartean) desfile eta aurkezpenaren ondoren, 16.45etan infantil mailako probak jokatuko dira, 18.20etan junior eta jubenil mailakoak. Amaierako desfilea baino lehen Ariznoako 5 gimnastak Aritzeta abesbatzarekin batera dantza batzuk eskeiniko dituzte. Bestalde, Eskola Kiroleko B kategoria-ko finaletan, Ariznoako alebin taldea txapeldun izan zen, Amaia Torre benjamin txapelduna, Ezozki Artetxeberria 2.a eta Ainhoa Unamuno 3.a.



ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

HEMEN
edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88



Bordaketako ikastaroetako ikasleak. 1958.

G abardina eta abrigo luzez jantzita ageri den neska koadrila honetan Juzgauko etxean "Alfa" antolatutako bordatze-ikastaroetan parte hartu zutenak ditugu. Hara nortzuk diren ezkerretik eskumara:

Lehenengo ilaran: Mari Isabel (Antzuolakoa), Isabel Alberdi, Maria Pilar Muruamendiaraz, Maria Gloria Etxaniz, Irene Gabilondo, Artizko Eugeni, Susana Kintana, Rosa Mari Elkoroberezibar eta Arantza Askasibar.

Bigarren ilaran: Maria Karmen Elorza, Maria Jesus Perez, Maria Sol Etxeberria, Celestina Garitano, Begoña Arriaran, Maria Jesus Aranzabal, Juanita Arbulu, Anparo Etxaniz, Maria Jesus izeneko bat eta Maria Luisa Ezkurra.

Hirugarren ilaran: Gregorio Gabilondo, Anastasi Basauri, Rosarito Larrañaga, Maria Luisa Laskurain, Jesusa Laskurain, Asun Unamuno, Juanita Garitano eta Angelita Ugarteburu.

*Etepan Plazaola
Argazkia: Bixente Jauregi*

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

MINER
ardak

Biltegiko telefonoa: 76 41 41

Ardo
onak,
jakina

ETXEBIZITZA

Jacan udarako apartamentua alokatzen da.
☎ 76 43 98.

3 pertsonarentzako pisua alokairuan hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten.
☎ 76 57 69/76 13 23.

Artzamendin pisua salgai ☎ 74 40 82.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52. Eguerdian edo gauean.

Garajea salgai Ozaetan ☎ 76 56 94.

Pisua alokatzen da Zurraideron. ☎ 76 23 27.

Garajea alokatzen da Zurraideron ☎ 76 21 39.

Eroski gainean 62 m karratuko pisua salgai.
☎ 72 00 66 / 81 23 17.

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisu haundia salgai Urteagan. Terraza, sukaldea, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

Garajea salgai Bolun (1.200.000) ☎ 76 25 38

DENETARIK

BMW serie 3 kotxea salgai. Merke. ☎ 76 18 65.

Asteburuetan Madrilera joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Disko gordun ordenadorea hilebete batetarako alokatu nahi nuke ☎ 76 40 54 (gauez).

Mendiko bizikleta (GAC) salgai ☎ 76 47 94.

Kanping denda salgai (haundia). ☎ 76 26 73

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

MOBYLETTE CADY motor bat salgai.
☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etzeko gela bikoitzez bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Motorrean ibiltzeko kasako integrala erosiko nuke. Merke bada hobe. ☎ 76 10 04.

Errekuperatutako eta berriztutako altzariak salgai.
☎ 76 25 12 / 76 82 17.

Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai.
☎ 51 51 41.

4 metroko ADRIA karabana salgai. 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauez).

Haurren aulki bat (Silver Choss) saltzen dut eta kotxea (Arrue) oparitzen dut. ☎ 76 32 74.

SEGA Megadrivea salgai. (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

OPEL CORSA City, BIAK salgai. ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

LANA

Etzeko lanak egin edota umeak zainduko nituzke. ☎ 76 44 67 (Leire).

AutoCAD, FP2 Informatikan praktiketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etzeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Esperientziadun neska batek haurrak zaindu edota etzeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 58 10.

Hildakoak

German Astigarraga Perez
maiatzak 14, 32 urte
Eustakia Kortazar San Pedro
maiatzak 18, 86 urte

Jaiotakoak

Ane Barragan Guridi
maiatzak 10
Sara Arietaleaniz Coranti
maiatzak 10
Mikel Lasa Murgizu
maiatzak 11
Maialen Castro Novoa
maiatzak 17
Ane Etzaniz Zubizarreta
maiatzak 18

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

IGARZA

Merzeria Lenzeria

Udarako bainujantziak

Irala5 Tfnoa 76 24 88

Zure Esku



EUSKADI



EAJ
PNV

HOBETZEKO